

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

3632

111/2019 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko barne arroetako eta itsas uretako eremu sentikorrek izendatzen dituena.

Hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 91/271/EEE Zuzentarauak zenbait neurri finkatu zituen urak isuri aurretik behar bezala tratatuko direla estatu kideek berma zezaten.

Aipatutako zuzentzari horren 5. artikulua, zuzentzariaren II. eranskinean zehaztutako jarraibideen arabera, estatuei dagokiela eremu sentikorrek zehazteko beharra xedatu zuen, bai eta eremu sentikorraren izendapena 4 urtetik behin berraztertzeke ardura ere.

Abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege-dekretuak, hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikatu beharreko arauak ezartzen dituenak, zuzentzari horren transposizioa egin zuen barne ordenamendu juridikoan; horren bidez, bada, hiri-aglomerazio jakin batzuetan hondakin-urak bildu eta bideratzeko kolektore-sistemak izateko derrigortasuna arautu zen eta ur kontinentaletara edo itsas uretara isuri aurretik pasatu beharreko tratamenduak finkatu ziren, hondakin-ur horiek eremu sentikorretan edo eremu ez hain sentikorretan isurtzen diren kontuan izanik.

11/1995 Errege Lege-dekretua garatzen duen martxoaren 15eko 509/1996 Errege Dekretuak, besteak beste, eremu sentikorrek eta eremu ez hain sentikorrek zehaztean kontuan izan beharreko irizpideak xedatu zituen.

11/1995 Errege Lege-dekretuaren 7.3 artikuluan ezarri zen Autonomia Erkidegoei dagokiela propio euren lurralde-eremu barruko arro hidrografikoetan eremu sentikorrek eta itsas uretako eremu ez hain sentikorrek izendatzeko eginkizuna.

214/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko itsas uretako eta erkidego barruko arroetako inguru kalteberak izendatu zituen.

Bestetik, 509/1996 Errege Dekretuaren 7.2 artikulua izendapen hori gutxienez lau urtetik behin berraztertu beharra dagoela arautu zuen.

Hortaz, honako dekretu honek aipaturiko berrazterketa hori du helburu.

Horrez gain, eremu horien inguruan emandako informazioa osatze aldera eranskinari gehitu zaio, batetik, informazioaren tratamendu estatistikoa erraztearren, ur-masen eta eragindako aglomerazioen kodeak; eta, bestetik, eremu sentikorraren zedarritutako isurialdeak.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak aurretiazko deliberazioa egin eta 2019ko uztailaren 16an izandako bilkuran onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko barne arroetako eta itsas uretako eremu sentikorrek izendatzea du helburu dekretu honek, betiere Hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikatu beharreko arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege-dekretuak aurreikusten dituen ondorioetarako.

2. artikulua.– Izendapena.

1.– Dekretu honen eranskinean zerrendatzen dira izendatzen diren eremu sentikorrak.

2.– Aurrerantzean, 509/1996 Errege Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritakoa betez, izendapen horren inguruan egingo diren berrazterketak uren arloan eskumenak dituen sailburuaren agindu bitartez egingo dira, betiere izendapenak eremuetan aldaketarik eragiten ez duenetan.

3. artikulua.– Eragindako aglomerazioetako isurketen tratamendu zorrotzagoak izatea.

1.– 11/1995 Errege Lege-dekretuaren 7. artikuluari eta Uraren 200/60/EE Esparru Zuzentarauaren Ezarpenerako Estrategia Bateratuaren 23. gida-agiriaren gomendioei jarraituz, eragindako aglomerazioetan tratamendu osagarri murriztu beharko den nutrientea kontuan hartuta, ondorengo hartu ahal izango da aintzakotzat:

a) Urtegiatara urak isurtzen dituzten ibaien kasuan, fosforoa, oro har, eliminatu behar dela aurreikustea komeni da.

b) Ur gutxi elkartrukutzen duten estuario, badia eta bestelako itsas uretan nitrogenoa, oro har, eliminatu behar dela aurreikusi beharko da.

2.– Beharrezkoa denean, isurketa-baimenetan baldintza zorrotzagoak ezarri ahal izango dira isurketa jasoko duten urek indarrean dagoen araudian ezarritako ingurumen-kalitatearen arauak nahiz Demarkazioko Plan Hidrologikoak ezarritako ingurumen-helburuak betetzen dituztela berma dadin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen da Euskal Autonomia Erkidegoko itsas uretako eta erkidego barruko arroetako inguru kalteberak izendatzen dituen urriaren 16ko 214/2012 Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Uren arloan eskumena duen sailari baimena ematen zaio dekretu honetan ezarritakoa garatzeko beharrezkoa den xedapen oro egin dezan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Dekretu honen aurka, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, borondatezko berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari; edota, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, dekretu hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

UZTAILAREN 16KO 111/2019 DEKRETUAREN ERANSKINA

EREMU SENTIKORRAK ETA PLANOAK

Erlazionatutako ur-masaren kodea	Eremu sentikorrak	Zuzenean eremu sentikorretara isurtzen duten 10.000 biztanletik gorako hiri-aglomerazioak	Eremu sentikorretako isurialdetara isurtzen duten 10.000 biztanletik gorako hiri-aglomerazioak	509/1996 Errege Dekretuko II.) eranskinaren irizpidea
ES017MSPFES111R041010	Aixola urtegia	-	-	A
ES017MSPFES111R040070	Urkulu urtegia	-	-	A
ES017MSPFES111R031010	Ibaieder urtegia	-	-	A
ES017MSPFES111R030040	Barrendiola urtegia	-	-	A
ES017MSPFES111T048010	Butroe estuarioa	-	ES16480690103010 Butroe gaina	A
ES017MSPFES111T046010 ES017MSPFES111T046020	Oka estuarioa	ES16480460503010 Gernika-Lumo	-	A
ES017MSPFES111T045010	Lea estuarioa	-	-	A
ES017MSPFES111T044010	Artibai estuarioa	-	ES16480600105010 Markina-Xemein	A
ES017MSPFES111C000010	Inurritza estuarioa	-	-	A
ES017MSPFES111T014010	Oiartzun estuarioa	-	-	A
ES017MSPFES111T012010	Bidasoa estuarioa EAEko barneko arroetan	-	-	A


Eremu sentikorren eta eremu sentikorren isurialdeen mugaketa kartografikoa honako helbide elektroniko hauen bitartez deskargatu daiteke:

ftp://ftp.geo.euskadi.eus/cartografia/Aguas_Interiores/DECRETO_ZONAS_SENSIBLES_2019/Zonas_Sensibles_CI_CAPV.zip
(Código de copia auténtica/ Kopia kautoaren kodea: 63ec9d4dcf0f59bf43bd8394411ed5c2)

ftp://ftp.geo.euskadi.eus/cartografia/Aguas_Interiores/DECRETO_ZONAS_SENSIBLES_2019/Areas_Captacion_Zonas_Sensibles_CI_CAPV.zip
(Código de copia auténtica/ Kopia kautoaren kodea: 4e91be8c86cbeb26b239e8af58ee1548)


EREMU SENTIKORRAK


ZONAS SENSIBLES



















Artibai estuariora
Estuario del Artibai



Inurritza estuarioa
Estuario del Inurritza



Oiartzun estuarioa
Estuario del Oiartzun





2019ko uztailaren 29a, astelehena




EREMU SENTIKORREN ISURIALDEAK


AREAS DE CAPTACION DE LAS ZONAS SENSIBLES








2019ko uztailaren 29a, astelehena



Butroe estuarioaren isurialdea

Área de captación del estuario del Butroe





2019ko uztailaren 29a, astelehena





2019ko uztailaren 29a, astelehena



2019ko uztailaren 29a, astelehena



2019ko uztailaren 29a, astelehena

Bidasoa estuarioaren (EAE) isurialdea (EAEko barneko arroetan)

Área de captación del estuario del Bidasoa (en cuencas internas de la CAPV)

